


**TURISMO BULEGOA-OFICINA DE TURISMO**
Ifar kalea, 4 • 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 192 452 • Faxa: 943 192 804
turismoa@deba.eus • **www.deba.eus**

BEHE DENBORALDIA / TEMPORADA BAJA:

- Lanegunak/Laborables: 10.00-14.00 h.
- Ostiral eta larunbatak/Viernes y sábados: 10.00-14.00 / 17.00-19.00 h.
- Igande eta jaiegunak/Domingos y Festivos: 10.00-14.00 h.

GOI DENBORALDIA / TEMPORADA ALTA:

- Lanegunak/Laborables: 10.00-14.00 h. / 16.00-20.00 h.
- Igande eta jaiegunak/Domingos y festivos: 10.00-14.00 h.

Zonalde honetara bisita gidatuak antolatzen dira.
Se organizan visitas guiadas a esta zona.
Informazio gehiago-Más información: www.geoparkea.com

Debako Udala
Ayuntamiento de Deba

2015eko uztaila - julio 2015
Egilea/Realización: Kaioa (Deba)

Esta etapa del GR 121 entre Zumaia y Deba puede realizarse en ambas direcciones: Deba-Zumaia o Zumaia-Deba.

Al no ser una etapa circular, puede utilizarse el transporte público para volver al lugar de partida.

1 Iniciamos el recorrido junto al Ayuntamiento de Zumaia (0 m). Caminado entre estrechas calles llegamos a la iglesia parroquial, y tras descender una escalinata nos situaremos junto a la calle de San Telmo. Remontándola, nos dirigiremos a la ermita del mismo nombre, situada sobre los acantilados de la playa de Itzurun (800 m.).

### Ermita de San Telmo

La primera referencia escrita sobre ella data del año 1.540. Su santo titular es patrón de los marineros, motivo por el que desde el siglo XVII fue sede de la Cofradía de Mareantes de San Telmo.

Su arquitectura es de estilo popular. En su interior destaca el retablo rococó del siglo XVIII, realizado en madera, sin policromía ni dorados. Jalonando el retablo se sitúan las imágenes de Santiago y Santa Clara, ambas realizadas cuando la villa vendió las ermitas bajo la advocación de ambos santos.



### Desde los acantilados

Durante la bajamar, la rasa mareal nos muestra sus espectaculares formaciones de flysch. Los flysch son estructuras sedimentarias, a veces verticales, en las que a modo de gigantescas “milhojas”, se alternan capas duras (calizas y areniscas) y blandas (margas y rocas arcillosas).

El tramo entre Deba y Zumaia es uno de los pocos lugares del mundo donde los estratos muestran el paso de la era secundaria a la terciaria. En ellos puede apreciarse una capa originada, al parecer, tras la colisión de un meteorito con la tierra, lo que motivó la desaparición de los dinosaurios hace 65 millones de años.



2 Tras admirar la belleza de los acantilados, iniciamos un ligero descenso hasta llegar prácticamente a la orilla del mar. Desde aquí comenzaremos a ascender por un estrecho camino, introduciéndonos en un pequeño valle. El ascenso finaliza al llegar a la carretera que viene de Zumaia y que nos llevará hasta los cercanos caseríos Andika Zahar y Andika Berri (2.100 m.).

### Caseríos Andika Zahar y Andika Berri

Los caseríos Andika Zahar y Andika Berri marcan la línea jurisdiccional entre los municipios de Zumaia y Deba. La distancia entre estos caseríos y el núcleo del barrio de Elorriaga es de 2.300 metros.



3 Desde estos caseríos avanzaremos durante un corto tramo por la carretera asfaltada hasta tomar, a nuestra derecha, el camino de tierra que nos lleva al pequeño collado de Etarte. El camino ascendente nos conducirá a Galarretako Zabala, en el barrio de Elorriaga, donde existe una zona de recreo habilitada con mesas y bancos. En pocos minutos nos encontraremos en el núcleo del barrio de Elorriaga, donde podemos hacer un alto para visitar la ermita de San Sebastián (4.400 m.).

### Panorámicas

El ascenso hacia Elorriaga nos ofrece, a nuestra izquierda, bellas panorámicas de los montes que forman el cordal de Izarraitz. En la fotografía, el monte Andutz; tras él se encuentran el barrio y el santuario de Itziar.



### Ermita de San Sebastián de Elorriaga

La ermita de San Sebastián fue un importante enclave en el Camino costero de Santiago. Es citada en 1.625 por Lope de Isasti, quien remonta su antigüedad a los siglos X-XI (según Aldazabal, su origen sería incluso anterior al de la iglesia de Itziar).

En el interior de esta sencilla ermita destaca su pila bautismal románica, así como la imagen de Andra Mari (siglos XIII-XIV) y dos pequeñas tallas de San Roque y San Sebastián.



4 Tras dejar atrás el barrio de Elorriaga, las señales de la pista nos llevan hacia una vaguada próxima a la zona de Txakotegain y Sorazumendi. Descendiendo, nos dirigimos hacia el caserío Arantza Goikoa y posteriormente a Arantza Bekoa.

Desde aquí, el sendero desciende prácticamente hasta la línea costera. Tras atravesar la pequeña regata de Errotaberri, habremos llegado a Sakoneta (7.700 m.).

### Sakoneta

La cala de Sakoneta posee una de las mejores formaciones de flysch de la rasa mareal entre Deba y Zumaia.

En sus acantilados, los estratos originalmente horizontales se muestran en posición vertical. Ello es debido a los movimientos internos de la tierra originados hace 40 millones de años durante la orogenia alpina.



5 Desde Sakoneta comenzamos a ascender hacia el caserío del mismo nombre. A nuestra derecha, debajo, las calas de Sakoneta y Mendata. En frente podemos ver la cara este de Punta Mendata, más conocida como Aitzuri.

Descendemos hacia las vías del ferrocarril y antes de llegar a éstas pasamos sobre el túnel, dirigiéndonos hacia el caserío Mendata (8.600 m.).

6 Avanzando por el sendero, paralelo a la franja costera, comenzamos a ver la cara Oeste de la imponente mole pétrea de Aitzuri. Iniciamos el ascenso hacia el barrio de Itxaspe, hasta llegar a las proximidades del camping del mismo nombre (10.800 m.).

### Aitzuri

Cara oeste de la mole rocosa de Punta Aitzuri, con sus característicos “ojos”. A sus pies, la playa de cantos rodados.



7 Desde Itxaspe, descendemos por la pista que a través de la zona denominada Atalaia y posteriormente Aitzuriaurre, nos lleva hasta la cota más baja del pequeño valle de Arronamendi.

Llegados a este punto, comenzamos a ascender hasta llegar a la carretera N-634, en las proximidades del mirador panorámico de “La Salve”. Cruzaremos la pasarela de madera y tomaremos el sendero que nos lleva hasta la ermita de Santa Catalina (12.100 m.).

### Ermita de Santa Catalina

Situada en la cima del monte, es una verdadera atalaya desde la que se divisa una gran parte de la costa vasca. Las primeras referencias sobre esta ermita datan de 1539.

Antiguamente, se celebraba misa y romería los días de Santa Catalina y de San Juan. Actualmente, se celebra tan sólo el día de San Juan (24 de Junio), en el que todos los asistentes son agasajados con un “hamaiketako” por los vecinos de los caseríos cercanos.



8 Tras descansar y admirar las bellas panorámicas que nos ofrece este lugar, tomamos el camino que, tras atravesar la campa, se dirige hacia los caseríos Etxeberri e Iparragirre (No descender por el camino junto al acantilado, está cerrado y es muy peligroso). Sobrepasados estos caseríos, continuaremos de frente por el camino señalizado con las marcas rojas y blancas del GR. Éste va descendiendo hasta desembocar en una pista cementada junto a la ermita de San Roque. Desde ese punto, en pronunciado descenso, en pocos minutos nos encontraremos en el casco histórico de Deba (14.000 m.).



Entrada del GR-121 en el casco histórico de Deba. En primer plano, la ermita-humilladero de la Santa Cruz. Al fondo, el ayuntamiento.



# DEBA

## FLYSCHAREN IBILBIDEA
## RUTA DEL FLYSCH

GR 121- TALAIA

ZUMAIA • DEBA

Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca




Deba eta Zumaia arteko itsasertz babestu honek 8 kilometro inguru eta 4.299 hektareako azalera du. Eremu honetan berezitasuna, bakantasuna, edertasun ikusgarria eta zientziaren aldetik nazioarte-mailan interes nabaria duten formazioak daude. Naturaren altxor paregabea gordetzen du: Lurraren historia geologikoaren azken 60 milio urteak arroketan idatzita, geruzaz geruza hurrenez hurren. Itsasoaren higaduraren eragiez agerian geratuak, begien bistan utzi dizkigute, guk ikusteko moduan, Lurreko historian berrikien izan diren gertaera garrantzitsuenetako batzuk ulertzeko gakoak besteak beste, dinosauroak desagertu zireneko garaia. Era berezian babestu behar dugun hauskortasun handiko habitata da.

- **Prestatu aurrez irteera ahalik eta xehetasun gehienekin**
- **Ibili beti mendi-bideetan zehar**
- **Zaborrak etxera eraman edo edukontzietan hustu**
- **Utzi gauzak zeuden bezala edota zeuden baino hobeto**
- **Kontuz suarekin**
- **Errespetatu larreetarako landare eta animaliak**
- **Itzan atsegina gainerako bisitariekin**
- **Errespetatu nekazarien lana**

El litoral protegido entre Deba y Zumaia consta de 8 kilómetros y 4.299 hectáreas de notoria singularidad, rareza, espectacular belleza y destacado interés científico a nivel internacional. Esconde un singular tesoro natural: más de 60 millones de años de historia geológica escritos en sucesivos estratos rocosos que, a causa de la erosión del mar, han quedado al descubierto y muestran las claves para comprender algunos de los eventos más significativos de la historia reciente de la Tierra, como la gran extinción de los dinosaurios. Es un hábitat de gran fragilidad que debemos proteger de forma especial. Ayúdanos a conservar este tesoro:

- **Planifica y prepara tu salida al detalle**
- **Camina siempre por la traza del sendero**
- **Elimina los deshechos apropiadamente**
- **Deja todo como lo has encontrado, a poder ser mejor**
- **Atención al fuego**
- **Respeta la vida silvestre**
- **Sé considerado con otros visitantes**
- **Respeta el trabajo agrícola**

FITXA TEKNIKOA /FICHA TÉCNICA:
- Iraupena / Duración: 4 h.
- Luzera / Longitud: 14 km.
- Zailtasuna / Dificultad: Ertaina-Media
- Desnibela / Desnivel: 183 m.

PR-Gi 5001 SAKONETA
SL-Gi 5002 ELORRIAGA

GR 121 - TALAIA IBILBIDEAREN SEINALEZTAPENA
SEÑALIZACIÓN DEL RECORRIDO

| Norabide zuzena<br>Continuidad del recorrido | Norabide aldaketa<br>Cambio de dirección | Norabide okerra<br>Dirección equivocada |
|---|---|---|

Zumaia eta Deba arteko etapa hau Gipuzkoa bi norabideetan egin daiteke, Deba Zumaia edo Zumaia Deba.

Ez da ibilbide zirkularra eta hasiera puntura bueltatzeko garraio publikoa erabil dezakezu.

**1** Ibilbidea Zumaiako udaletxearen ondoan hasten da (0 metro). Kale estuetan barrena parrokia elizara helduko gara eta, eskalinatan behera egin ondoren, San Telmo kale ondora. Kalean gora egingo dugu eta San Telmo ermitara helduko gara, Itzurungo hondartzako itsaslabarren gainera (800 metro).

### San Telmo ermita

Ermitari buruzko lehen idatzia 1540. urtekoa da. Santua marinelen zaindaria denez, XVII. mendetik ermita San Telmoko Marinelen Kofradiaren egoitza izan zen.

Arkitektura herrikoia dauka. Barruan XVIII. mendeko rococo erretaula bat dago, egurrezkoa, polikromiarik eta urre kolorerik gabea. Erretaulan Santiagoren eta Santa Klararen irudiak daude; bi irudi horiek egin zituzten herribilduak bi santuen izenpeko ermitak saldu zituenean.



### Itsaslabarrean

Itsasbeheran, marearteko zabalgunean flysch egitura zoragarriak ikusten dira. Flysch direlakoak egitura sedimentarioak dira, batzuetan bertikalak. "Hostopil" erraldoi moduan, geruza gogorrak (kareharriak eta hareharriak) eta bigunak (tuparri eta harkaitz buztintsuak) daude tartekatuta.

Deba eta Zumaia arteko tartean estratuek era sekundariotik tertziariorako igarotzea agertzen dute; oso leku gutxietan gertatzen da hori. Geruzetako bat, dirudienez, meteorito bat lurrera erori ondoren sortutakoa da; meteorito horrek dinosauroak desagertzea eragin zuen, duela 65 milioi urte.



**2** Itsaslabarren edertasunaz gozatu ondoren, behera egingo dugu, itsasertzera. Han, bide estu batean gora egingo dugu berriz, bailara txiki batera. Igoera Zumaiatik datorren errepidean amaitzen da; errepide horrek Andika Zahar eta Andika Berri baserrietara eramango gaitu (2.100 metro).

### Andika Zahar eta Andika Berri baserriak

Bi baserri horiek Zumaiako eta Debako udalerrien muga jurisdikzionalean daude. Baserrietatik Elorriaga auzora 2.300 metro daude.



**3** Baserriak pasa ondoren asfaltatutako errepidean egingo dugu tarte bat, eskuinaldean Etarte muinora doan bidearekin topo egin arte. Bide hori hartu eta gora egingo dugu, Elorriaga auzoko Galarretako Zabalera arte; han olgetarako leku bat dago, mahai, banku eta guzti. Elorriaga auzoaren erdigunera heltzeko minutu gutxi batzuk beharko ditugu; han, atseden hartzeko, San Sebastian ermita ikustera joan gaitezke (4.400 metro).

### Ikuspegiak

Elorriagara heltzeko igoeran, ezkerraldean, Izarraitz mendigunea osatzen duten mendiak ikusten dira. Argazkian, Andutz mendia; mendi horren atzean Itziarko auzoa eta santutegia daude.



### Elorriagako San Sebastian ermita

San Sebastian ermita oso garrantzitsua zen Santiagorako kostaldeko bidean. Lope de Isastiren 1625eko idatzi baten arabera, ermita X. edo XI. mendekoa da. Aldazabalen iritziz, ordea, Itziarko eliza baino zaharragoa da.

Ermita soil horren barruan elementu hauek dira garrantzitsuenak: bataiarri erromanikoa, Andre Maria-ren irudia (XIII. edo XIV. mendea) eta San Rokeren eta San Sebastianen bi taila txiki.



**4** Elorriaga auzoa atzean utzi eta ibilbideko seinaleek Txakotegain eta Sorazumenditik gertu dagoen ibarbide batera eramango gaituzte. Behera egin eta Arantza Goikoa baserrira helduko gara; gero, Arantza Bekoa baserrira.

Handik, bideak kostako lerroraino egiten du behera. Errotaberriko erretena igaro ondoren, Sakonetara helduko gara (7.700 metro).

### Sakoneta

Sakonetako kalan dago Deba eta Zumaia arteko marearteko zabalguneko flysch egitura ikusgarriena.

Itsaslabarretan, jatorriz etzanda zeuden estratuak zutik daude. Zergatik? Duela 40 milioi urte, orogenia alpinoan, lurraren barrualdea mugitu egin zelako.



**5** Sakonetatik gora egingo dugu, lekuaren izen bera daukan baserri aldera. Eskuinaldean, behean, Sakoneta eta Mendata kalak ikusiko ditugu. Aurrean, Mendata puntaren ekialdeko aurpegia; Mendata puntari gehienek Aitzuri esaten diote.

Behera egingo dugu, trenbiderantz, baina trenbidera heldu aurretik tunelaren gainetik pasako gara, Mendata baserrirako bidea hartzeko (8.600 metro).

**6** Bideak kostako lerroaren norabide bera dauka. Laster Aitzuriko haitz itzelaren mendebaldeko aurpegia ikusiko dugu. Itxaspe auzora doan bidean gora egingo dugu, auzoaren izen bera daukan kanpinera heldu arte (10.800 metro).

### Aitzuri

Aitzuriko harkaitz itzela, bere "begiekin". Haren altzoan, uharridun hondartza.



**7** Itxaspen, pistan behera egingo dugu, aurrena Atalaia esaten dioten lekuan zehar eta gero Aitzuziaurren barrena. Hala, Arronamendiko bailara txikiaren hondoraino helduko gara.

Orduan, gora egingo dugu, N-634 errepidera, Salbe begiratoki ingurura heldu arte. Egunezko pasarela gurutzatuko dugu eta Santa Katalinara eramango gaituen bidea jarraituko dugu (12.100 m).

### Santa Katalina ermita

Mendiaren gailurrean dago eta talaia zoragarria da, euskal kostaldearen parte handi bat ikusten baita. Ermitari buruzko lehen dokumentuak 1539. urtekoak dira.

Antzina meza eta erromeria egiten ziren Santa Katalina eta San Juan egunetan. Orain San Juan eguna (ekainaren 24a) bakarrik ospatzen da: bertaratzen direnei hamaiketakoa ematen die inguruko baserrietako jendeak.



**8** Atseden hartu eta toki honek eskaintzen digun paisaiaz gozatu ondoren, ermitako zelaia zeharkatu eta Etxeberri eta Iparragirre baserrietara abiatzen den bidea hartuko dugu. Etzazu itsaslabarren ondotik doan bide malkortsua hartu, oso arriskutsua da eta itxita dago. Aipatu baserriak atzean utzi eta GRaren marka gorri eta zuriz seinaleztatutako bidetik jarraituko dugu, beherantz, San Roke ermitako zementuzko pistara heldu arte. Hemendik, aldapa handia jaitsi eta minutu gutxitan Debako herri gune historikora iritsiko gara (14.000 m).



Debako herri gunerako GR-121aren sarbidea. Aurre-aurrean Gurutze Santuaren ermita eta atzealdean Udaletxea.

